

VICENTE MADUZ JAUREGUI

Mediku psikiatra. Argibide Fundazioko (Buruko Osasunaren Garapenerako Nafar Fondoa) kide sortzailea eta bere zuzendaria gaur egun. Asistentzi-lanetan aritu da batez ere. Hainbat Psikiatria-Zentrotako zuzendaria izan da (Elizondoko Pilarreko Andre Maria Klinika, Argibide Fundazioko Buruko Osasun-Institutua, Iruñeko Bideko Andre Maria Klinika, Eguneko Psikiatria-Ospitalea, Burlatako Buruko Osasun-Zentroa, Altsasuko Josefina Arregi Klinika).

Gizarte-osasun arloko hainbat elkarte eta baliabiden bultzapean eta sorreran parte hartu du. Irakaslea izan da Nafarroako Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Erizaintza eta Gizarte Lan Eskoletan. Gai psikologiko eta antropologikoei buruzko graduazio ondorengo ikastaro monografiko ugari antolatu ditu. Zientzi- eta ikerkuntzajardun inportantea burutzen du bere espezialitateko gaien inguruan.



Zabaltze- eta heziketa-lan trinkoa burutzen du, bai unibertsitate ingurunean, bai ikastetxe, guraso-eskola eta hainbat gizarte-erakundetan, eta etengabe parte hartzen du publikoki heziketa, gizakiaren arazo eta klinika eta osasun arloko arazoekin erlacionatutako jardueretan. Nafarroako Osasun Kontseiluko Batzordekide eta Osasunbideako Gobernu Kontseiluko Batzordekidea izan da. Gaur egun, Nafarroako "Medicus Mundi"ko Presidentea eta "Bartolome de Carranza" Fundazioko Presidentea da. Nafar Ate-neoko Presidentea izan da eta, gaur egun, Erakunde horren presidenteordea da. Hainbat argitalpenen egilea, besteak beste "Los miedos del Hombre Moderno" (1988, 2. argitalpena).

Gogoako forokidea da.

a u r aurkibidea d e a

6

SARRERA

7

Erlijioa: agente patogenoa izan litekeena

- Ikuspuntu Historikoa
- kanpoko erlijiositatea sustrai kaltegarri gisa ikusia
- kanpoko erlijiositatearen kontzeptua
- kanpoko eta barneko erlijiositateen arteko diferentziak
- kanpoko erlijiositatearen muga psikologikoak
 - behartutako inkulturazioa
 - Jainkoaren irudi faltsu eta gaixotuak
 - Formalismo kulturalak
 - eliz egitura
 - Autoritarioa
 - Segurtasun-gabezikoa
 - motibazio desegokiak
 - Afektiboak
 - Sozialak
 - Dinamikoak (identifikazioak eta proiektzioak)
- kanpoko erlijiositatearen ondorio psikologiko negatiboak
 - fede heldugabea
 - heldugabetasun pertsonala
 - neurotizazioa
 - idolatria
 - Jainko-liderra
 - Jainko-adiskidea

15

Kanpoko erlijiositateen gutxitze historikoa

16

Gaur egungo zibilizazioa, fedea eta buruko osasuna

a u r aurkibidea d e a

19

Eliza gaur egun

21

Bihozberritze baten beharra

- banakako maila
- maila publikoa
- talde-elkarte maila
- eliz maila

24

Jainkoarengan sinestea “erotasan” bat da?

26

Erlijiositatea: agente sendagarria

- barneko fedea
- egiazko fedearen dinamika
 - Bilatze prozesu bat
 - Zain dagoen jainkoa
 - Presente dagoen jainkoa
 - Elkartzea
 - Nork bere burua konfiantzaz ematea
 - Elkar maitasuna
 - Gizakiaren misterioa eta jainkoaren misterioa
 - Fede bizitza konpartitua
 - Fede bizitza bideratua
- Onura psikologikoak
 - Fede sendagarria
 - Autoezagutzaren hobetzea
 - Hazkunderan laguntzaile
 - Giza bertuteen bultzatzailea
 - Gizarte erantzukizunen handitzailea

36

Konklusioa

SARRERA

Gogoa Foroan biltzen gara gure sinestun arazoak aztertzeko eta, denon artean, gaur egungo munduan dugun zeregina bereizteko.

Foro honek eztabaida irekian eta etengabekoan du oinarria. Horregatik, behin baino gehiagotan hemen, Foroan, nik baino lehen hitz egin dutenek esandako hainbat gauza aipatuko dut. Ibilian doan diskurtsoan emandako beste urrats bat gehiago bailitzan begiratu behar zaio nire ekarpenari, horrek bakarrik justifikatzen baitu ni gaur he-men egotea.

Ni -zuetako asko bezala- azkeneko 30-40 urteotan gurasoengandik jaso genuen fede katolikoan aldaketa handiak eta ha- gitz interesgarriak modu trinkoaz eta lehen lerroan bizitzeko zortea izan dugun belanaldi horietakoa naiz. Gertaera horrek gertatutakoa ulertzen laguntzen ahal digu, izan ere gure esperientziak labo- rategiko aztertze-lanarekin antza handia baitu, trinkoa da eta kontrolatu beharreko aldagai askotakoa.

ERLIJIOA: AGENTE PATOGENOA IZAN LITEKEENA

Historikoki, erlijioa buruko osasun arazoak sortzeko kultibo-likidoa izan da.

Hirurogeiko hamarkadako soziologi inkestetan beti nortasun heldugabe eta neurosi-arazo gehiago egiaztatzen zen sinestun-praktikatzaile kristauen taldean, batez ere katolikoan artean.

Garai hartan arrazoia zuten, hein handi batean bederen, erlijio fenomenoaren inguruan nabarmendu ziren kritika eta interpretazio batzuek. Laburki bada ere ezagunenak gogoratuko ditugu:

- **Ivan Pavlov-ek pentsatzen** zuen erlijio fenomenoak babesa bilatzeko sen bat bezalakoak zirela, izadi beldurgarri batean bizitzeak eragiten duen beldurraren aurrean babesa bilatzeko zera bat.
- **Bronislaw Malinowski-rentzat** erlijioa hilezkortasunaren itxaropen irrazionalaren doako eskaintza zen eta jendea segurtasun bila zetxekion erlijioari.
- **Sigmund Freud-ek babes** fenomeno batzuk ikusten zituen erlijio gertakarian: alde batetik,

dinamika atzeragarri bat zeinen bidez sinestunak aita ahalguztidun baten irudipean babesten zen; bestetik, libido erreprimituak sortutako egonezin eta segurtasun falta lasaitzeko egiten ziren erritual obsesiboan bilduma bat, erreprimitutako libido hori babes-proiekzioa besterik ez litzatekeen irudi (Jainkoa) baten ondorioa litzateke erlijioa.

- **Karl Marx-entzat** erlijioa “herriaren opioa” litzateke eta herriaren alienazioa eragiten zuen funtsik gabeko mehatxu eta promesaren bidez.
- **Albert Ellis-ek zera** idatzi zuen: “gizakiak zenbat eta erlijioatuz gutxiago izan, orduan eta emozio-osasun hobea du”.

Erlijioaren praktikaren ondorioz sortzen den buruko osasun faltarekin lotuak dauden aurkikuntza horien ondoan gertakizun berbera, errepikatua eta eztabaidaezina, aurkitzen dugu: gizaki heldugabe eta neurotikoei, erlijio gertakariaren inguruan horrela hazi direnek, “kanpoko erlijiositate” bat, xalo eta infantila, bizi dute.

Aitzitik “barneko erlijiositatea”, heldua eta pertsonala, bizi duen pertsona batengan patologia psikiatriko bat agertzen bada, ikusten duguna zera da: erlijio gertakariak, kasu horretan, jokabide “patoplastikoa” bakarrik erakusten duela (itxura ematen dio, baina ez da bere kausa). Horrela ikusten da, esaterako, arazo psikotikoetan, funtzional zein exogenoetan, zeinek beren erlijio edukizko eldarnio eta haluzinazioetan, edo harridurazko jokabideetan (estasiaren antzekoak), edukia erlijiozko elementuez betea duten, baina ez erlijioak eragina.

Ikuspuntu kausal batetik, argi dago –beraz– “kanpoko erlijiositatea”, gaizki irakatsia eta barneratu gabe dagoena alegia, buruko osasunerako arriskutsua dela eta arazo neurotiformeetara eramaten ahal duela, eta batzuetan erreazio psikotikoak izateraino iritsi daitekeela.

Komeni zaigu, beraz, “**Kanpoko Erlijiositatea**” esaten dugunean zer ulertzen dugun **definitzea**.

Alport-ek “Kanpoko fedea” deitu eta berorrek horrela definitu zuena litzateke: “ohitura edo usadioa, tribu–herentzia, aldizkako ospakizunetan famili interesak betetzeko edota norberaren kontsolamendurako erabiltzen dena. Erabiltzeko bai baina bizitzeko ez den zerbait”.

Argi eta garbi geratu da zer erlijiositate motaz ari garen: soziologikoa, apersonala edo aurre–personala, jatorrizkoa eta barnekoa ez dena (soziala edo publikoa

delako), pertsonarentzat funtsezkoa ez dena, gizakiak erantsitako edo gehitutako zerbait bezala bizi duena eta, noizbehinka, gizarte arrazoiengatik (ezkontzetara edo hileta elizkizunetara joatea) edo, halaber, magiazko edo superstiziozko arrazoiak dei ditza kegunengatik (gurutzearen seinalea egitea, otoizlabur bat esatea, promes bat egitea... antsietatea sortzen duten egoeren aurrean) erabiltzen duena.

Dagokigun ikuspuntu psikologikotik begiratua, agerikoa da erlijiositate kultural bati buruz ari garela, barneratu eta personalizatu gabekoa eta heldugabea.

Gai berbera aipatuz baina beste esapide bat erabiliz **Ken Wolber**, 1983an idatzitako “Eye to Eye” izenburuko liburu batean bi “erlijio” mota diferentziaz mintzo da:

- bat, “egiazkoa” deitu zuena, guk “barnekoa” deitu duguna eta –bere ustez– “hazkunde bertikala” (gizakiaren garapena, alegia) ahal–bidetzen duena,
- beste bat, “legezkoa” deitu zuena eta guk “kanpoko” erlijiositatea deitu duguna eta –bere ustez– “hazkunde horizontalera” eramaten duena (hots, segurtasun–erosotasun egoera batean egotera; irudi bat erabiliz, sujeta “gizentzen” du, baina banakako erantzukizunen burutzetik urrutzen du)

Ikusten ahal dugunez, batera doazen iritziak ugariak dira: kanpoko erlijiositateak, edozein izeenez deituta ere, gizakia pobretzen du eta arazo psikologikoak

sortzen dizkio, barneko erlijiositateak, ordea, gizakia aberastu eta heldutasun psikologikora iristen laguntzen dio.

Agian **koadro diferentzial** batek ideiak konkretatzen lagunduko digu.

- Kanpoko erlijiositateak, inkulturatuak, gertakari batekin (“erlijioa”), “betebehar” eta “arauekin”, eta kulturalki transmititu diren “erritoei” lotutako praktika batzuekin (jokabide formalekin) du zerikusia.

Testuinguru horretan Enrique Miret Magdalenak “erlijioa” “edukitzen den” zerbait dela esaten du, testuinguru berberan Juan Antonio Estradak, Foro honetan emandako hitzaldian “erlijioak Jainkoa ordezkatu dezakeela” esan zipun.

- Barneko erlijiositateak edo egiazko erlijiositateak, Jainkoaren esperientzia pertsonaletik sortzen denak (fedea egintzak) sinestunaren “fedea bizitza” adierazten du (Jainkoarekiko komunikazioa) eta bizitza “mistikoan” (Jainkoarekiko harreman misteriosuan) oinarritutako erlijio “praktika” bat da (konpromiso funtsezkoa eta osatzailea)

Miret Magdalenaren ustez “erlijiositate” horrek sinestunari “izatea” ahalbidetzen dio (“erlijioa edukitzen da, erlijioso izaten da”)

Gure hitzaldian aurreratuz, ego-kia iduritzen zaigu **kanpoko erlijiositateari lotuak zaizkion muga psikologikoak** agertzea, eskematikoki bada ere.

Lehenik, **behartutako inkulturazioak** eragiten duen sistema ideologikoa bat da, bere menpe dauden pertsonen elementu negatiboa batzuk sarrarazteko gai dena:

1. Jainkoaren irudi faltsuak:

a Batetik, Jainko–sinboluarena, abstraktua baina apersonala; mai–tasuna, egia, zuzentasuna bezalako balore unibertsalen irudikapen bat bezala agertzen da; altruismo eskuzabalera eramaten du, egile batzuek “aktibismo laikal edo ateo” deitu dutenera, edo Eliza beste GKE bat bezala hartzera.

b Bestetik, **Jainkoaren ezaugarri pertsonal okerrekin** lotutakoak:

- Jainko “**Autoritarioa**”: jeloskor, despota, J. Jabcobiren hitzetan “mendekua–ren egarri” egon eta zigortzailea dena (paradisutik kanporatzen du, uholdea, izurriak, hondamenak, IHESA, eta abar)
- Jainko “**Paternalista**”: hornitzaile absolutu eta mugagabea, bere sorkarien lekua hartzen duena eta horien existentziaren determinatzailea. Azken finean, “Naturaz gaidiko baliabideen bidez ontasun materialez hornitzen duena”.
- Jainko “**Superbabeslea**”: gizakia haur bezala tratatu eta errespetatzen ez duena.

- Jainko **“Posesiboa”**: jaun eta jabea, “jauntxoan” ezaugarriekin.
- Jainko **“Super-gizona”**: jainkotasunik gabekoa, gizakia bakarrik (gero ikusiko dugu nola, Jesusen irudian oinarrituak, “izandako gizonaren gainean Jainko bat eraiki” dezakegun, eta horrela, Jainkoaren okerreko ikuspegi horri lagundu)

2. Formalismo kulturalak

a Dena kutsatzen duen kristau zibilizazio bat, batzuetan dena konfunditzen duena, ingurune soziala eta bere dinamika propioak “kolonizatuz”.

b Jainkoaren erabilera kontziente eta hipokrita etekinak lortzeko asmoz.

c Itxurak eta formak funtsezkoaren aurrean kokatu:

- jokabide esteriopatu eta hutsalak, “karitatezkoak”, keinuzkoak edo gisa horietako beste batzuk.
- komunikazio patroiz zaharrituak, bizirik gabekoak eta gaixotia (tenpluetan ematen diren jokaerak, apezekiko harremanak, eta abar)

2 Bigarrenik, urteetan zehar **botere egitura bat, eliz aparato puztua**, non instituzioa, behin baino gehiagotan, sorrera eman zion bizitza itotzen bukatu den.

Marcel Legaut-ek “Eliza desleiala” deitu zuenaz ari gara: askotan patologien indartzerako balio duen marko bat non, nire ustez, oraindik ere, ikuspegi psikologikotik oinarritzeko bi “gaitz” handiak ikusten ditudan:

1. Autoritarismo zama neurrigabekoa, azpiproduktu ugari sortzen duena:

- botere eta menperatzearen *erabilera* (“obedientziak” moztutua)
- arauen eta legeen *gehiegizko erabilera* (Elizaren “irakaspelean” babestua)
- sinestun-menpekoaren *manipulazioa* sugestioaren bidez edo horren indartze teknikak erabiliz (burua janean, esaterako, nekea, iluntasuna, kontaktua, fokalizazioa, hurbiltasun fisikoa... aprobetxatuz)

2. Segurtasun-gabezia antiebanjelikoa :

Gehiegizko defentsa motibazioetara (eta egoikoak) eta neurri gainerako “eskandalizatzen beldur” batera eramaten duena, inibizio askotara eta gaizki deitutako “zuhurtziaren” justifikatzailea.

3 Hirugarrenik, hain zaharra den kristau tradizio kulturalak **erlijio motibazio desegoki** askoren sorrera eragin du, bere erlijioa “eduki” eta kitto nahi duten Elizaren jarraitzaile askorengan

errotuak daudenak. Aipatze hutsek ezagutaraziko dizkigu.

1. Afektiboak:

- Frustrazio askoren konpentsazioa: materialak (gaixotasuna, pobrezia); sozialak (isolamendua, bazterketa); moralak (auto-mezprezua); maitasunezkoak (bakartasuna, errefusateza); bizitzazkoak (minusbaliotasunak, heriotza)
- *Eстетikoak*: erlijio edota eliz giroarekiko plazer eta gozamenak

• *Atribuzionalak*: estuasun pertsonala berez sortzen duten fenomeno natural eta existenzialak arrazoi erlijiosoei leporatu. Horrela, Bernhard Spilkak, bere “atribuzioaren teoriaren” bidez, erlijio fenomeno askotan aterpe bat ikusten du –elementu magiko askorekin– zeinen bidez bizitza-arazoei zentzua ematen zaien eta erosoago eta seguruago sentitzen den (horrela, erlijioak galerak lantzen, barneko kontrola indartzen eta autoestima hobetzen laguntzen du)

2. Sozialak

- Ospe edota boterearen eskuratzeara
- Interes ekonomiko edota sozialak

3. Identifikazio okerrak

Gurasoen irudiekin dauden arazoen luzamendua edota gehiegizko konpentsazioa (edo-

nola ere, ez dirudi haurtzaroko gurasoekiko identifikazioak ondorengo erlijiositatean eragin handia izanen duen faktorea denik; eragin handiagoa du –negatiboa gainera– haziera bitarteko erlijio inkulturazio okerrak)

4. Proiekzio okerrak

Autoestima txarrak, sarritan, bidea ematen du gizakiak Jainkoaren irudi mendekari eta baztertzaila proiektatzeko.

1 Kanpoko erlijiositateko ezaugarri osasungaitzak ezagutu ondoren aipatu erlijiositateak gizakiaren gainean eragiten dituen **ondorio psikologiko negatiboak** azal ditzakegu. Berriz ere laburki egiten saiatuko gara:

Fede heldugabe, faltsu eta eskasaren onarpena; ezaugarri nagusi hauek ditu:

- *atxekimendu intelektuala* doktrinari
- *afilazio afektiboa* (lotura) talde edo giro bati
- *instituzio baten kide izatea* (Eliza)
- *atxekimendua sinesmenei*, dakarten segurtasuna bilatuz (ikazkinaren fedea: “obeditzea aski da”)

2 Heldugabetasun pertsonal batean gelditzea, Jainkoarekiko harremana ere oztopatzen duena, eta horrelako ezaugarriak errazten dituena:

- *infantilismo atzerakoia* (Jainko Ahalguztidun eta Magiko batekin, eskakizunen bidez seduzitu nahi dena, eranspen grina-tsu, pasibo eta anbibalente baten bidez)
- *arduragabeko pasibitatea*, “Jainkoak egingo du” delako esaera funtsik gabekoan oinarritua.
- *indefentsioaren pasibitatea*, Jainko determinatzaile eta itoztaileak sortua, askatasunerako eta autonomia pertsonalerako

tokirik ematen ez duena.

- *morroiaren pasibitatea*, Jainko jauntxo baten irudian oinarritua.
- Frustrazio *gelditzea*, erruduntasun gaixotuek sortua.
- Frustrazio *erlijiositate patikoa*, erlijioa sentsazioen baitan uzten duena (erlijiositateak “esaten dit” edo “ez dit esaten”)

3 Dinamika neurotiko ugarien ezarpena, norabide bikoitzean:

1. defentsa mekanismo inkontziente, estereotipatu eta zurrunen gehiegizko erabilera:

- neurritz gaineko *errepresioak* (agresibitate, zapalketa edota masokismo gaixotira eramaten dutenak)
- gehiegizko *sublimazioak* (testuingurutik ateratako “angelismora” eramaten dutenak)
- *identifikazio mimetikoak* (Jesusen irudi etereoak edo eredu asexuatu eta irrealak eskaintzen duten santu edo klerigoen irudiak direla eta, etsipena sortzen dutenak)
- *narzisismo* egozentrikoak (eten-gabeko lausengua bilatzen dutenak: “bai ona zaren!”)
- *lekualdaketa deskontrolatuak* (“kaperazaletasuna” eta jokabide sektario edo fundamentalistak elikatzen dituztenak, pentsamendu bakarraren hurbil)
- *itzulpen konpentsatzaileak* (es-

talitako injustziengatik ematen diren itzulpen urriak “karitatez” mozorratzen dituztenak)

- *atzerapen* eta transferentzia ugariak, guraso izaerazko irudi erlijiosoenekiko erlazioan agertzen direnak.
- *katarsialdiak* askatu (“zakua hustu” egiten dutenak) baina damua errazten ez dutenak.

2. Hainbat estualdi eta konstelazio neurotikoen kristalizazio eta finkatzea. Ugariak:

- *Obsesibitatea* eta bere ingurukoak: segurtasun falta eta beldurra; erruduntasun zapaltzaile eta paralizatzailea; eskrupuluak; aladura antzuak; moralismo gaixotia; doilorkeria eta nihilismo morala; arrazoitzeak zalantzak; bulkadazko fobiak eta autokontrola galtzeko beldurra; ihesbide ugariak (ateismo praktikoa)
- *instalazio depresiboak*, agresibitatearen barne-proiektzioak, gehiegizko formalismoak, ez-kortasun zurrunak, gaizki uler-tutako neurritasunak eta plazer guztien aurreko ihesak erraztua.
- *benetako ez den perfekzionismoa*, eredu izateko joera hieratikoa oinarritua.
- *jokabide histrionikoak*, sasimistikoak edota sasimaitasunezkoak (estasia eta antzekoak), erakartzeko fenomeno jendetsuek erraztuak.



4 Ezkutuzko idolatria baten ernaldia

Sinestunak Jainkoaren irudia eza-gutza mailan bakarrik osatzen badu eta ez esperientzia mailan, lortzen duen emaitza Jainkoaren Hitzeko Irudia da: hizkuntzaren metafora bat, ezagungarri, izen-garri eta ulergarria. Kasu horretan, arrazoi mailan Jainkoaren irudi hori faltsutzeko eta Beraren irudi propio eta partikularra erakitzeke arriskua dago. Azken finean, idolo berezi bat sortzea.

Hori da kanpoko fedezko sinestunak aurre egin behar dion arrisku-eraketako bat: berak duen Jainkoaren irudi propioa gurtzen buka daiteke, "Irudi egindako Jainkoa" gurtu ordez.

Bi dira katoliko heldugabekoen artean nagusitzen diren Jainkoaren irudi arketipoak:

- *"Jainko-liderra"*, giza itxurazkoa (duela denbora gutxi oso modan egon zen, Che Guevararen gisako Jesusen ikonografia gogoratu besterik ez dugu

behar). Jainkoaren eredu horrek, aipatu dugun bezala, aktibismo gizazale ateora darama, horrezaz gain praktikatzen duenari, sententzietan mailan duen "bere burua betetzeko" jarduerak burutzeko beharrera (heldugabea) bultzatzen du maiz.

- *"Jainko-adiskidea"*, "lagunkidea", nerabe pentsamoldeetan agertzen dena, desjainkotua eta lagun babesle bezala ikusia, Jainko-Aita Kreatzaileari baino Zumosol-eko lehengusuari hurbilago zaiona.

KANPOKO ERLIJIOSITATEEN GUTXITZE HISTORIKOA

Zalantzarik gabe, bi gertakariak lagundu dute sinestun soziologikoen kopurua gutxitzen, fede erreferentzi bezala kanpoko erlijiositatea dutenena, alegia:

- Vatikanoko II. Kontzilioa (1962-1965); horrek bultzatutako "eraberritzearen" bidez, neurri handi batean, katoliko askoren fede heldu lagundu zuen eta, edonola ere, erlijio gertakaria

gizartearengana ausardiaz hurbildu eta mundu modernoan kokatzen lagundu zuen.

- Gaur egungo historia-zikloko gizarte mugimenduak, zeinek, handituz doan sekularizazio prozesuaren bidez, mendebaldeko munduan eta batez ere Europan, duela mende askotatik nagusi zen "kristau zibilizazioarekin" bukatu duten.

GAUR EGUNGO ZIBILIZAZIOA, FEDEA ETA BURUKO OSASUNA

Aintzinako zibilizazioek, zeinetan –Olegario Gonzalez de Cardenalen hitzetan– “kristautasuna”, gertakari historiko bezala (dogmatiko eta doktrinala), indartsua zen eta “kristiandadea”, errealitate eta ondare kultural eta instituzional bezala (“ontasun publikoa”) ere bai, kanpoko erlijiositatea elikatzen zuten, bere heldugabetasun eta neurotizismo zama osoarekin.

Gaur egun, bere garaian Juan Antonio Estradak eta Jose M^a Mardonesek aipatu zuten bezala eta publiko eta nabarmena denez, kristau ez den kultura batean (“post-kristaua, Olegario G. de Cardenalen hitzetan) bizi gara, non ateoak baino gehiago gizaki agnostiko edo fede axolagabeak nagusitzen diren.

Hemen gaudenetako asko J.A. Estradak “belaunaldi bisagra” deitu zueneko partea gara, eta bi egoera horietan bizi izan gara.

Fedearen ikuspegitik, gaur egungo zibilizazioaren ezaugarri batzuk aipa ditzakegu, Foro honetan Jose Maria Mardonesek, Javier Sadabak eta Juan Antonio Estradak jadanik seinatu zituztenak:

- 1.** Zibilizazio kulturantza eta erlijioantza partekatzen dugu, dituen alderdi on eta txarrekin.
- 2.** Kontaezinezko eskaintzak, mota guztietakoak, jasotzen ditugu, horietako gehienak egiaz apainduak edo mozorratuak, ezen batzuetan sineskortasun handiko pertsonengan –J.M. Mardonesek dionez “beren nahasmen eta segurtasun faltan”– eragina izan dute.
- 3.** Horren guztiaren ondorioa da “idolo” ugarien agertzea: dirua, ospea, boterea, utopia ideologikoak eta beste anitz gehiago.
- 4.** Horrekin batera, beste erlijio eskaintza tradizionalak ugartzuten dira, erlijiositate “arin” berriak, Mardonesek “teknopiritualitateak” deitu zienak, horietako asko ekialdeko kutsukoak, izaera zehaztugabeko eta sasi-magikoak, ihes egiteko eta, batzuetan, zorionaren mitoari lotuak (gogoratu beharko genituzke, besteak beste, petrikiloen praktika sendatzaileen



gorakada, ekialdeko teknikak eta “New Age” motako mugimenduak)

- 5.** Aurrekoarekin batera, gaur egungo gizarte dinamikak, neurri handi batean sentsazioen eta “egotearen” munduan ezarriak (ez dezagun ahantz oraindik ere “ongi izatearen Estatua” mantentzeko borrokatzen garela) itxuraz “osotasun” eskaintzak bailiran aurkezten zaizkigunak, eta jende asko nahasteko gaitasuna dutenak:

- behin-behineko plazer iragankorrak, batzuentzat “zuzenak” eta, horregatik, “sasi-zoriontasun” baten iritziaren sortzaileak.

- betetze sentsazioa sortzen duten kontsumismo masiboa eta arrisku jarduerak.
- gustu eta gozamena eskaintzen dituzten bukaerarik gabeko erosotasunak.
- narkotizatzen eta nirbana faltsuak sortzen dituzten parrandak, eszitazioak, drogak eta antzekoak.
- penagarri eta oinarritzkoa denetik ihes egiteko bideak, muturreko hedonismo baten ondorioz.

- 6.** Horrelako zibilizazioaren markoan, pertsona askorengan, batez ere beste kulturarik bizi ez duten gazteengan, gero eta indar handiagoa hartzen ari da moral mota berri bat, soziolo-

goek “moral eboluzionatua” deitu dutena, postkonbentzionala (kristau baloreetan oinarritutako moral konbentzionaletik aldendua) eta laikoa. Kasu hauetan gizarte gai handiez eta bioetika arazo unibertsalez interesatuak eta kezkatuak bizi diren pertsonen ari gara (ekologia, demografi- eztanda, garapen sostengatua, eta antzekoak)

Gaur egungo munduak dakarren haize bolada hotz handi horretan, batzuetarako kaltegarria eta besteendako ona, lau talde bereiz daitezke fede katolikoaren munduari dagokionez:

- garai batean “katolikotzat” onartzen zen gehiengo bat eta, gaur egun, sinesgabeen taldera pasatu direnak (agnostikoak gehienbat)
- sinestun kopuru dexente bat, hemen gaudenetako asko, gure jaiotzatik jasotako kanpoko fede baten planteamenduetatik hazi eta ondu behar izan dugunok fede heldu eta pertsonaleko premisetara iristeko.
- aurrekoen adin bereko sinestun talde batzuk, ongi definituak,

kontrarreforma mugimendu baten babespean –beldurtuak– erreakzionario eta inboluzionista dei ditzakegun planteamenduetan ezkatzen direnak.

- jende gazteaz osatutako gehiengo bat, deskribatu dugun bezalako ingurune sekularrean hazi dena; hauek beren aurrean dute, kristau fedeari begira, orain arte inoiz experimentatu ez diren aukera eta zailtasunak; horri buruz Olegario Gonzalez Cardenalek, El Escorialen emandako azken uda ikastaroan ohartarazi zuen. Jende-multzo gazte horri begira, galdera batzuk sortzen zaizkigu: nola deskubritu dezakete gazte horiek Jainkoa, eta zein bideetatik iritsi ahal izanen dute Harekin topo egitera? Eta, bestaldetik, zer egin dezake horien alde Jainkoaren Herriak, Elizak?

Ezarpn zuzeneko, irakaspeneko tekniketara itzultzeko tentazioa erakargarria da, baina –buruko osasunaren ikuspegitik eta, beraz, egiazko fedearn ikuspegitik– iruditzen zaigu horrek ez lukeela inolako zentzurik izanen.

ELIZA GAUR EGUN

Agerikoa da, gaur egun, guztion artean eraiki dugun Eliza-Instituzioa ez dela Jesus-Jainkoa ezagutzera emateko bide aiposea.

Alde batetik ospe-galera handia pairatzen du; datu batek berresten du baieztapen hori: azken urteotan nafar gazteriarri egin ohi zaizkion inkestek esaten dute “sinestun” identifikatzen diren gazte gehiengo batek ez duela ezer ikusi nahi Elizarekin ezta “erlijio ofizialarekin” ere.

Fenomeno horrek bultzatu du, zalantzarik gabe, J.A. Estradak aipatu zuen emaitza bat: fedea, gero eta gehiago, gertakari pribatu eta intimoa bilakatu dela. Ez genuke ezer horren kontra oharpen horrekin gaur egungo fedeari Karl Rahner-ek duela berrogei urte iragarri eta proposatu zuen izaera “mistikoa” ere baduela ikusiko bagenu, baina errealitate kezkarria bat da izaera pribatu horrek fedeari bere ezinbesteko dimentsio anaikor eta trantsitiboa kentzen diola ikusten dugun heinean.

Edonola ere, agerikoa da kanpoko erlijiositate soziologikoak ez

duela tokirik gure gaur egungo mendebaldeko zibilizazioan eta, hala eta guztiz, Eliza-Instituzioak bere gaitz historiko askoren zama mantentzen du oraindik, Jacques Gaillot-ek, Juan Antonio Estradak eta beste batzuek azpimarratu zuten bezala. Horietako batzuk, deigarrienak, honako hauek liriteke:

- *Klero* bat, askotan desanimatua, nekatua, desfasatua eta errealitate sozialetan sartua ez dagoena.
- *Klerikalismo morroizale* baten arrastoak, parroketan dauden eta hurbil sentitzen diren laiko askorengan kutsatzen direnak, akolito hutsak bilakatzen gaituena, “baimenduak” bezala bakarrik jarduteko gai.
- *Autoritarismoaren* hondarreko aztarnak, alde batetik erabaki absolutisten adierazlea den eta, bestetik, erabaki organoetarako laikoen eta emakumeen sarerrarako oztopo eta zailtasun handiak jartzen dituen.
- *Hagitx hierarkizazio* estu eta antzua, gaixotasun kolektibo bat, agintea dutenen ardura

izateaz gain, Jainkoaren Herria osatzen dugun guztiona dena. Apezpiku eta erretore askok ezin dezakete askatasunez agertu eta jardun euren inguran gauden eliztar laikoaren inposaketa –zital– bat dela eta.

- *Zuhurtzia eza*: Elizaren irudi zalantzia eta nakarra eskaintzen duen zuhurtzia faltsua, Ebanjelioaren izaera profetikotik aldendua, oportunistak eta pribilegioen bila ibiltzearen irudia ematen duena. Zuhurtziak –aurreikuspena– gauzak neurritasunik gabe egin edo esateagatik sor daitezkeen eragin negatiboak begiratzeaz gain, egin behar direnak ez egiteak dakarzkien ere begiratzea eskatzen du.
- *Mezu ambiguo eta ilun bat*. Elizak Jainkoari buruz gutxi eta doktrinaz eta moralez gehiegi hitz egiten du agian. Historikoki, Eliz-Instituzioa Jainkoaren irudi faltsu askoren transmisio-

rea izan da, jadanik aipatu direnak, eta Kristoren irudi itxuragabetua eta irrealak azaldu du (Nazaretoko Jesusen irudi abstraktu, epela, asistentzialista, ambiguo eta adostatzailea)

- Jose Maria Mardonesek deitutako “Arrakasta taldeen” *gotorlekuak*; talde hauek “egiaren” gordetzaileak direla eta “okerratik” aske daudela uste dute, eta Eliza Ofizialaren egitura handiaren atzean babesten dira, bere erlijiositate soziologikoa, heldugabea eta askatasun pertsonalaren kontrakoa berriz inposatzeko aukeraren zain baleude bezala.

Gertakari horien aurrean, batek galdetzen du: zer eskatzen dio Jainkoak bere Herriari gaur egun? Zein da gure erantzukizun pertsonala eta kolektiboa egoera horren aurrean? Zer eskatzen du gure buruko osasunak?

BIHOZBERRITZE BATEN BEHARRA

Gure buruko osasunak eskatzen du gaur egun, nire iritziz, gutako askorengan, guztiongan behar bada, bihozberritze bat, etengabeko eraberritze bat, lau urrats jarraituetan bizi behar dena:

1. Banakako maila

Jainkoarekiko komunikazioa bilatuz eta gure burua bere eskuetan jarriz, fede dimentsio banakako bakar eta jatorrizkoan: Jainkoak begirune osoz errespetatzen duen gure askatasunean (Berak deuseztatu eta bertan behera utz zezakeena) oinarrituak, *gure egiazko erroetara*, hots, Jainko Aita Kreatzailearengana gu *berritzuliz*.

Kristoren jarraitzaile egizale eta *dizipulu* bilakatuz, Aitari lotua egotea eta leial izatea zer den hobeki ezagutu eta konprenitzeko.

Horrek Jesus, Maisuaren, dimentsio erreala berreskuratzea eskatzen du: bere Jainko eta Giza Izaki Perfektuaren izaera bikoitza, Jainkoak agindutakoa betetzen duena, gure erreferentea –hain zuzen– izateko.

Bere *aldarte*a, Ebanjelioaren bidez atzemandakoa eta bizitzara-

ko onartutakoa, izanen da inspiratuko gaituena. Eta ez Berari buruz ditugun ideia zaharrak. Berri Onak horrela aurkezten digu Jesus:

- indartsua, bizizalea, ausarta, profeta.
- libre, espontaneo, ozar, naturala, xaloa.
- maitasunez urratua, abegi emalea, mugarik gabeko tolerantzia eta ahulekin ulerkorra.
- apala, latinezko etimologiak dioen bezala, “oinak lurrean dituen”.
- Aitari leiala, Bildots bezala.
- gurutziltzatua, bukaeraino leiala, guztion ontasuna bilatuz hila zena, baita “gurutziltzatzen genuenona” ere (J.A. Estradak gogoratu zigun bezala, erlijioaren izenean gurutziltzatu zuten)

Jesusen bidez Jainkoarekin dugun loturak izpiritu berri etengabeko eta gozagarri berrian mantenduko gaitu beti, Iraunkor eta Transzendentea den bakarraren Maitasunak eta Jakinduriak sorrarazitako izpirituan.

2. Maila publikoa

Fedea, barneko maitasun gertakari kuttuna den aldetik, ezin daiteke banakako eremuaren mailan itxia geratu –modu endogamiko batez–, aitzitik bere izaeraz *meta-transzendentia* bat eskatzen du: besteei irekia eta aldarrikatua izatea.

Hori horrela da maitasunaren dinamikak elkarrekikotasunaren eta hirugarren batzuei poztasunez iragartzearen aldeko apostua –paraleloan– egiten duelako. Jainkoarekiko fedezko maitasun ko-munioa ez litzateke ulergarria izanen, baldin eta besteenganako *Berri Onaren iragarteaz* lagundua biziko ez balitz.

Eta, halaber, “Jainkoari bihozberritzea Jainkoarenari bihozberritzea delako”, berarekin bat egin eta “berearekin” erruz konprometitzea. Eta “berea” mundua da, Kreatzailearengandik bereiztu ez daitekeena (Ignacio Igleasiasek “La Alegría de la Conversión” izeneko liburuan)

Axolagabekeriazko mundu batean Jainkoarekiko topaketa ezkutatzea, koldarkeria izateaz gain, ezinezkoa egiten da. Benetako maitasunak sentitzen duena “desinstalatu” egiten du eta kanpora ateratzera eta adieraztera bultzatzen.

Horregatik, kontua “predikatzearen” agindua betetzean baina, Jainkoaren “ezagutzaren” bizipen erlijiosotik ondorioztatzen diren gozotasun eta zintzotasunari leialitatean datza, harek eramaten uztean.

Clive Lewis-en hitzei jarraikiz,

aurretin “eskale alaia” izan dena, maitasunaren oparia aurkitzen duelarik, hunkitu eta lehertu egiten da eta gehien maite dituen gizakiei horren berri ematen die. Modu horretaz sinestunak, bere fede bizitzan ari den bitartean Jainkoaren “islada” eta “irudi” bihurtzen da –ia konturatu gabe– Jainkoa “errepikatuz” eta besteei “aurkeztuz” eta haren erlazioaren berri zabalduz.

Seguraski, benetako fedea duen kristau batek bere ingurura botatzen dituen Jainkoaren “argi-zeinu” horiek “hutsuneak” (“zulopak”) sortzen dituzte, eta inguratzen dutenek “ulertu” ez baina bai “sentitu” egiten dituztela. Hustasun sentsazio horien bidez beharbada, berarengandik hurbil dauden gizakiek Absolutuaren bilatzeari ekin diezaiokete eta, isiltasun hutsune horietan, Jainkoak bere seme-alabak itxoin, haiekin elkartu eta eraberritu ditzake, bai haiek bai euren ingurunea ere.

Jainkoaren testigantza lan horretako inhibizioa, J. A. Estradak aipatu eta gaur egun ugari diren ez-egitezko bekatuaren artean nagusizat har genezake.

Sinestuna, Jainkoarekiko bere maitasunaren erantzulea (erantzuteko gai) izanik, Jainkoaren “esku” bilakatzen da mundua ber-egiteko eta, gainera, munduko sorkari guztien aldeko maitasunez betetzen da. *Horregatik ezinezkoa litzateke Jainkoa maitatzea bere sorkariak maitatu gabe*. Clive Lewis-ek baieztapen erabatekoa egiten du errealitate horren inguruan: “legez kontrako eta bidegabeko maitasunak baina

txarragoa da “utzikeriaz onartutako desamodioa” –maitasunari ixtea–, nahiz eta Jainkoarekiko erlazio garbiago bat errazteko asmoz egina izan”.

3. Talde-Elkarte maila

Maitasunaren iturritik edaten duen sinestun oro egindako aukera, bere proiektua, bere fede pertsonala konpartitzera eta fede aukera kolektibo bihurtzera deitua sentitzen da.

Horrela “*fedee elkarteak*” sortzen dira, taldearen aurretikoa den dizipuluaren bilera. Dizipulu izatea Elizaren aurretikoa izan da beti (“Zu harria zara, eta harri horren gainean eraikiko dut nik nire Eliza”)

Historikoki, lehenbiziko kristau elkarteak osatzen dute Elizaren oinarria. Orain ere, dinamikoki, kristau elkarteak *Elizaren oinarria izan beharko lukete* eta ez bere adarrak.

Psikologikoki fede elkarte batek, berdintasunean eta elkar lanean aritzen den mistiko talde bat izan eta dena elkar banatu beharko luke: gauza materialak, misterioa eta garaikideei Berri Ona hots egiteko beharra.

Maila soziologikoan, markatutako gidoitik atera diren eta beren erlazioetan (“elkarren artean maitatzeko moduagatik” Jn,13-35) eta estiloan (ilusionatua, alaia, egiazalea eta abegikorra) inkonformista multzo arraro bat bezala ikusiak egon beharko lirarteke.

Seguraski, Jesus Ramírez de la Piscina “ez dela predikalariak prestatu behar, Ebajelioaren leku-

koak prestau behar dira, baina ez hitzontziak” esaten zuelarik, horrelako presentzia motan pentsatzen ari zen.

4. Eliz maila

Fede elkartearen bilketak Jainkoaren Herria osatzen du, Eliza Institutuzioaren izateko arrazoia.

Jainkoaren Herriak, Elizak, eraberritze sakona behar du.

Jacques Gaillot-ek, bere hitzaldian, horretarako bide ugariak ireki zizkigun. Guztion artean horrelako Eliza lortu behar dugu:

- irekia eta harbera gizartearen, sinesten ez dutenen eta beste erlijioetako kideen aurrean.
- hurbila eta elkarriketarako irekia: adeitsua (“hitz egiteko prestua”)
- mota guztietako pobreei irekia, Pobreen Eliza izenari leiala.
- elkarteena: maitasun-karitatearen hartzigarria (dohaintasunarena), otoitz, konpromiso eta sakontasunarena.
- heldua: humanizatzaile, pertsonalizatzaile eta solidarioa.

Bihozberritutako Eliza hori lortzen badugu Erreinua berrezarri ahalko dugu, gaur egun bere presentzia estaltzen duena salatuz eta bere falta argituz.

Horrelako Eliza batek soilik izanen du sinesgarritasuna; J.A. Estradak aipatu zigun bezala, Kristo Gurutziltzatua, Eguneroko Jainkoaren aurrekaria iragartzen badu, proselitismo profetikoa proselitismo zuzenda-tzailearen gainean kokatuz.

JAINKOARENGAN SINESTEIA “EROTASUN” BAT DA?

Ikuspegi psikologikotik agerikoa da azalpen sakon baten beharra.

Fede bizitzak osagai ilogiko eta irrazional handi bat daukela kontuan hartuz, ez litzateke arriskutsua izanen gizaki bat horrelako dinamika batean sartzea?

Zalantzarik gabe, fede bizitzak aipatutako arriskuak dauzka baina, irrazionalitatea eta logika falta izateak ez dizkio bere baliotasun eta egia kentzen.

Fedea, ilogikoa izanik ere, ez da logikaren kontrakoa, eta ez du amatezko errealitateekin zerikusirik, ezta errealitate irrealekin edo gezurrezkoekin ere.

Jainkoarekiko fedea misterioan sortzen da: Jainkoaren eta bere kreaio osoaren misterioan, giza existentziaren misterioa barne.

Misterioa zera da “giza adimenak modu arrazional-deduktibo batez ezagutu ezin dezakeena”. Errealitate misterioa, ulertezina da baina existitzen da, ez da faltsua, ezta, bukatzeko, errealitate sekretua ere.

Atzeman daitekeen zerbait errealarekin du zerikusia, pixkanaka-pixkanaka argituz joan daiteke, baina gaur egun ditugun bitartekoen bidez inoiz ere ez da erabat bereganatzen iritsiko.

Jainkoa, eta berari inguratzen dion guztia, Misterio harrigarria da: bere existentzia, bere gaitasuna, bere “izaera-anitza” (hirutasuna) eta gainerako guztia.

Misterio guztietan bezala, Jainkoa deskubritzen dugun neurrian gero eta gehiago harritzen gaitu (berdin gertatzen da, esaterako, zientzien misterioekin)

Giza existentziak berak ere, bai orainaldiko dimentsio gertagarrian bai etorkizuneko-traszendentean (baina ez irreal) dituen misterio ugariekin, haraindiaren, Absolutuaren, Jainkoaren misteriora ireki eta bultzatzen gaitu. Giza existentzia, ezagutzen dugun tartera mugatzen badugu, heriotzarekin bere misterio guztiak argitu gabe uzten baditugu, ulergarritasun gutxikoa egiten zait. Gizakia absolutua dela eta bere heriotzarekin osotasuna bukatzen dela pentsatzeak, nire logika higuintzen du kontrakoak baino gehiago. Planteamentu horretan, zer litzateke gizateria? Etengabe hautsita eta distortsionatua dagoen kate bat? Absolutu bukatuen segida bat? Giza existentzia ulertzerakoan sentitzen dugun ezjakite eta ezintasunak Jainkoaren misteriora barneratzen gonbidatzen digu.

Ezin daiteke Jainkoa frogatu, baina sumagarria da arrazoiaren ikuspegitik. Ezein argudio logikok ez dio kontrarik egiten ezagutzen dugun gure giza izaera existentzia traszendentalago eta iraunkorrago baten atal mugatua izatearen posibilitateari, ezagutzen ditugun denbora eta espazioaren kategoriez gabetua dagoen errealitate bat.

Giza ikuspegitik, hiru ezagutzabideak daude:

- enpirikoa, hautematean oinarritua, errealitate egiaztagarrietan sinestera garamatzana.
- arrazional-deduktiboa, logikoa, errealitate frogagarrietan sinestea baimentzen diguna.
- esperientziala-bibentziala, bizitzen dugunean sinesteak bermatzen duena.

Iksupegi enpiriko eta arrazionaletatik, arrazoizkoa idurituko luke Jainkoaren existentzia ukatzea edo, gutxienez, alde batera uztea. Horrela egin dute pertsona askok, gaitasun handikoak gainera, historian zehar. Esaterako horra hor Miguel Torga, zeinek “Canto libre del Orfeo Rebelde” izeneko liburuko bi pasarte hauetan bere pentsamendua azaltzen zuen:

*“A qué Dios implorar cualquier ayuda,
si soy yo el que fabrica a las divinidades.
Imagino,
Imagino,
Y, de tanto subir, llego a lo divino...”
“Dios sólo nos puede dar lo que
Tenemos ya”*

Hala ere, Torgak berak zirrikitu bat uzten dio irekia Jainkoaren existentziaren zentzugabeari buruzko zalantzari, lan bereko beste testu batean horrela baieztatzen duenean:

“Negar a Dios. Muy bien. Pero que no sea para divinizar sucesos más absurdos aún”.

Dena den, aipatutako hiru hurbiltze bideen artean, bibentzialak ahalbidetzen du existitzen den Izaki erreal, ezagugarria (Jainkoa) badagoela eta berarekin erlazio pertsonal benetakoa eraman daitekeela. Horregatik ez dut “erotasuntzat” hartzen Jainkoagan sinestea eta berarekin erlazio bat bititzea.

Edonola ere, esan dugunaren ildotik, argi eta garbi geratu da fedea ez dela “arrazionalki sinestetik” sortzen baizik eta “sineste bibentzialetik”: horrek berekin dakar fedeari irekitzeko “bilatze ideologikoaren” ordez “barreneko bideari”, misterioengandik (mistikoa) hurbilago dagoenari, jarraitu behar zaiola.

Fedea, bada, ez da funtsean ezagutzazko (adimenezko) jarduera bat izanen, ezta afektibotasun jarduera bat ere: konpromiso existentzial gisako jarduera bat izanen da ordea, zeinen bidez gizakiak Jainkoarekin “bat egiten duen”, modu horretaz, bere etorkizuneko existentziarekin “bat egiteko”.

ERLIJIOSITATEA AGENTE SENDAGARRIA

Egiazko erlijiositate batek, barneko fede batetik sortu dena, gizakia ez alienatzeaz gain pertsona bezala hazten eta “izaten” laguntzen dio, horregatik hobetze agente bilakatzen da zentzu bi-koitzean:

1. Frogatua dago fede heldua dutenak gehiago ahalegintzen direla bere giza garapenean eta, fede horretan, zera aurkitzen dute:

- bizitzari zentzua emateko laguntza
- eragozpenak gainditzeko laguntza
- poza eta zorientasunerako arrazoiak

2. Bestaldetik, kide zaren fede elkarrekin babes sistema eraginkorra da sinestuna bizi gertakari estresagarrien aurrean babesteko.

Esandakoaren frogaz bezala, estatistikek baieztatu dute egiazko kristauen artean, fede heldua bizi dutenen artean alegia, ingurune

sozialean jatorria duten depresioak ez direla hain ugari.

Allport-ek **“Barneko Fedea”** deitutakoa da erlijiositate pertsonalaren oinarria: “pertsona batek, izatearen bateratzeari begira, balore goren bezala onartzen duen hori, anaitasunaren agindua seriooki hartzen duena, behar autozentratuak gainditzeko borrokatzen dena eta, modu horretaz, erlijio sentimenduak bere bizitza osoa motibazioz eta zentzuaz betetzen duena, integrala izanik eta dena estaliz”. Ikusten denez, fede mota horrek benetako erlijiositate bat ekartzen du eta dinamika pertsonal bat da, berezkoa eta barnekoa gizakiarentzat.

Esperientzia mota horretan, *“fede egintza”* (Jainkoarekin elkartzea eta Berarekin elkarrekotasun erlazioa mantentzeko erabaki pertsonala) baten ondoren sinestunak *“fede bizitza”* bat ezartzen du (Berarekin elkartzeko eta harreman pertsonala mantentzeko konpromiso sendoa) baldintza bikoitza suposatzen zaiona:

- Jarraitzen dion Maisuaren doktrina oinarritutako bizi-proiektua

- Jainko Aitarekiko maitasun harreman etengabea, zeinean bere existentzia guztia oinarritzen duen.

Horren arabera fede-bizitzak sinestuna “ber-egiten” eta osatzen du.

Psikologiaren ikuspegitik, fede-bizitza jator batek dinamika koropilatsu baten abiatzea suposatzen du eta, normalean, urrats batzuk eman behar dira. Beti modu berean ematen ez badira ere, argiarrira izan daiteke horiek ezagutzea:

1. **“Bilatze” prozesu bat:**

J.A. Estradak bere hitzaldian jarrera hau biziki azpimarratu zuen. Gizakiak absolutua bilatzera jotzen du, –noiz edo noiz– sentitzen duen existentzi hutsuneari eta misterioaren zalantzari ihardesteko, zenbat eta babesgabeagoa aurkitu orduan eta gehiago gainera, eta gaur egungo gizarteak eta lehen azaldutako arrazoiak errazten dute behar hori. *“Absolutuaren grina”* horretan zenbait psikologok *“erlijio sena”* deitu zutena ikusi zuten.

Gaur egungo zibilizazio post-kristauan, bilatze hori nahaste eta harridura sortzen duten *“absolutu”* eskaintza anitzen artean burutzen da.

Aldez aurretik Jainkoarekin kontakturen bat izan zuenari, nahasketa horrek *“Jainkoaren nostalgia”* sortzen ahal dio. Jainkoa inoiz ezagutu ez duen edo Berari buruz ezer entzun

ez duenak ordea *“hutsuneari”* sentsazio hutsa sentituko du, sinestunok *“Jainkoaren gabezia”* bezala itzuliko genukeena.

Psikologiaren aldetik absolutua, Jainkoa, bilatzea –hasteko– lan normal eta osasuntsua da, baina prozesu patogeno bat bihurtu daiteke baldin eta ariketa espekulatibo edo huts-hutsik intelektual bezala gauzatzen bada, beldurra eta segurtasun faltaren gainean jarritako zalantza iraunkorra bezala amaitzen bada.

Jose Maria Valverderen *“Hasierako Salmoa”* izeneko olerkiaren pasarte batek estuasun horretako zerbait biltzen du:

“Jauna, ez zaude nirekin, beti deitzen dizudan arren. Hor zaude, hodeien artean, nire ahotza iristen ez den lekuan, eta, batzuetan, eguzkia euriaren ondoren agertzen den bezala agertzen zara zu, badira existitzen zarenik ere pentsatu ezin dezakedan gauak.

Ez zaude nire barnean. Zure zulo beltza sentitzen dut nire erraiak hausten, gosezko aho bat bezala.

Eta horregatik deitzen dizut, Jauna, etengabe, eta horregatik Zure izenarekin konparatzen ditut gauzak, Zure neurriko luzaera eta zabalera emanez.

Jainkoaren gizona dut izen. Baina Jainkorik gabe nago”

Ez da erraza Jainkoa *“bilatzea”*, are gutxiago aurkitzea. Giza ikuspegitik Jainkoa errealitate iluna da, hautemanezina (zentzuek ez dute hautematen), imajinaezina (ez dugu pareko ezer ezagutu, beste dimentsio batekoa da) eta ulertezina (arrazoietik aldentzen da)

Hala ere, gure egitura psikologikotik sumatu eta iragar dezake-

kegu –gutxienez–. Beharbada, Berari deitu, eta gure aurrean ager dadila eskatu. Dirudienez, horrelako zerbait egiten du Blas de Oterok “Ecce Homo” izeneko sonetoan:

*“En calidad de huérfano, nonato
y en condición de eterno pordiosero,
aquí me tienes, Dios. Soy Blas de Otero,
que algunos llaman el mendigo ingrato.”*

*Grima me da vivir, pasar el rato,
tanto valdría hacerme prisionero
de un sueño. Si es que vivo porque muero,
¿a qué viene ser hombre o garabato?*

*Escucha como estoy, Dios de las ruinas.
Hecho un “cristo”; gritando en el vacío,
arrancando con rabia las espinas.*

*¡Piedad para este hombre abierto en frío!
¡Retira, oh TÚ, tus manos asebrinas,
no sé quien eres TÚ. Siendo Dios Mío!”*

2. Zain dagoen Jainkoa

Gizakiaren bilatze prozesuarekin batera Jainko-lzakia bizi da, gaur egungo existentzia iraunkor bat bezala, Jainko-Ezeza-gun baten irudian.

Izan ere, Jainko Aita izaki erreala da, Historiaren jatorri, kreatoraile eta mantentzailea. Bera da gizakia historian egotearen erroa eta horren lankidetzat eskatzen du egin beharreko lanean, bai banakako mailan bai unibertsal mailan.

Izaki Handi hori, neurrigabea, erakartasun sinestezinezkoa, “bizidunen Jainko” bat da, gizakia “bere irudiko” sortu zuen existentzia-bizitza mugagabeko batentzat. Bera da historiaren egiazko erreferentzia eta benetako gidatze-haria.

Jainkoaren utopia, Erreinua, –J.A. Estradak bere garaian esan zuen bezala, XX. mendeko beste edozein utopia gainditzen du, gainerako guztiak bildu eta osatzen baititu– errealitate sendoa eta haraindikoa da. Ezin dezake, eta ez du horrela egiteko arrazoirik, Askatasunarekin, Berdintasunarekin, Garapenarekin, Abertzaletasunarekin, Ideologiekikin... lehiatu. Horrek guztiak, Javier Sadabak esan zuen lez, hagitz balio positiboa eskaintzen dizkio gizakiari, baina berez nahiko ez direnak.

“Bizitza” eta “Erreinuak” Jainko horrek gizakia sortu zuen “maitasun asmakizun” bat bezala (E. Cardenal) “Jainkoak lehenago maite izan gintuen”. Kreazioan Jainkoak gizakiari bere egiazko “izaera” eman zion. Jainkoaren Erreinuari uko egitean, gizakiak bere “adurra” erakutsi zuen eta, horrekin batera, Jainkoarengandiko aldentzea eta Jainkoa ezagutzeko ondoriozko zailatasunak.

Baldintza horietan, Jainkoa –Kreatzailea– zain dago, galdutako gizakiari bere ituna etengabe eskainiz. Eta Aita batek egiten lukeen bezala egiten du, ezaugarri hauekin:

Ona: “Ama izpirituzko Aita” bat (L. Boff), eta Harengan xamurtasuna eta errukia dira ezaugarri bereizgarriak.

Maitagarria: maitasun berezi batez, doakoa, gizakiari benetako “izateko behararen maitasuna” sarrarazteko gaia. Maitasun misteriozko bat: Jesusek

bere mezua ematean agertu zuena: “Aitak maite nauen bezala, halaxe maite zaituztet nik zuek: irauin tinko nire maitasunarean” (Jn 15,9)

Adeitsua: nahi duena egiteko boterea izanik, ez du deus inposatzen, gizaki ororen askatasuna onartzen du eta norberari bere patua zuzentzeko baimeana ematen dio. Ez du bere boterea erabiltzen, nahiago du “Deialdiaren Aitatasuna” erabiltzea.

Eraman handikoa: itxuiten du, gu behartu gabe, Seme galduean parabolaren bezala, nahiz eta –Ernesto Cardenalek “Vida en el amor” izeneko liburuan dioten bezala– “Aitak amaigabekoa nos-talgia digun, eta Izpiritu Santua nostalgia horren hasperena den”.

Abegitsua: hurbila, bere aterpe eta lasaitasuna eskaintzen dizkigu. Beharbada horrela sentitu zuen Vicente Alixandrek “Padre Mío”ko bertso hauek idatzi zituelarik:

*“Ob Padre altísimo,
Ob tierno padre gigantesco,
que así, en los brazos,
desvalido, me hubiste.”*

*Huérfano de ti,
menudo como entonces,
beme boy aquí, Padre,
sobre el mundo
en tu ausencia,
mientras pienso
en tu forma sagrada
habitadora acaso
de una sombra amorosa,
por la que nunca,
nunca,
tu corazón me olvida”.*

Zuzena: ez du sekulan mendeakaren justizia erabiltzen, “Barkamenaren Justizia” da ezagutzen duen bakarra, damutzerre gonbidatzen duena (“giza aukera esentziala” J. Mariasen ahoan) eta ongira, batasunera eta orekara eramaten duen bakarra.

Ahalguztiduna: naturaz gaindikoa, guztiahaltsua, bere misteriozko gaitasunaren bidez harritzen gaituena.

“Gurea”: unibertsal eta gizabanako bakoitzarena, salbuespenik gabe. Aukeratuena (bataiatuak), ezjakinena (jentilak, paganoak), bereziena (“galduak”) multzo guztiaren eta bere ingurunearena. Ernesto Cardenalek, lehen aipatutako liburuko beste pasarte batean, horrela adierazten du: “Aitarekin bihotzak ezin dezake atsenden hartu kreazio osoa, Seme Galdua bezala, bere altzora itzuli arte”.

3. Presente dagoen Jainkoa

Zain dagoen Jainkoa ez dago isilik. Gizakiari agertzen zaio hiru modu desberdinez:

a **Kreazioaren bidez:** Unibertsoa, Izadia, Gizateria bere abalok dira eta begirunezko beldurra sortzen dute (“Jainkoarekiko beldurra”). Jose Maria Valverdek horrela adierazten du bere “Unibertsoaren otoitzan”: “*Oi Jainkoa, unibertso osoarekin batera otoitz egiten dizut, zeinak, hiltzean, hitz bakar bat esaten baitu, zure izena...”*”

b Bere *sorkarien bidez*: giza-kiak, bere irudi eta antza.

c Bere *hitzaren bidez*, esanahi bikoitzean ulertua:

- idatzizko hitza, bere ager-kunde (Biblia)
- bizitza egindako *Hitza*: Jesus, Jainkoaren Semea (“kristologiak” Kristok Jainkoa agertu zuen modua ikertzen du: Egia)

Presente dagoen Jainkoaren aurrean gizakiak, “ikusten ez den argiaren” dohaina den fedeaz eta, Ernesto Cardenalen metafora bat erabiliz, X izpiak bezalakoa denaz, Jainkoa beste errealitate hauetan aurkitu dezake eta *Beraren irudi bikoitza* osatu:

- *Kognitibo-Hitzezkora*: kontzeptuala, izendagarria, ulertua eta azaldua izan daitekeena, nahiz eta faltsutzeko arriskua hor egon.
- *Bizitzazko-bibientziala*: “izaten” eta “kokatzen” laguntzen duen esperientzian oinarritua.

4. “Elkartzea”

Gizaki bat, ibiltari alderraiak, ustekabez Jainkoarekin topo egiten duelarik, “deskubritu” edo, gutxienez, sumatu dezake, Bera, alde zurretik, “agertzen” zaiolarik.

Gertakizun horren aurrean, gizakiak erantzun eta Jainkoari bere burua agertu diezaioko

ala, bestela, topaketa saihestu eta ezkututzen saiatu.

Deiari ihardesteko gizakiak hiru gauza behar du:

- a** Sezezagunaren aurreko beldurra gainditu:
- galderez betetako inseguritate arrazionala gaindituz
 - absolutuaren bilatzean bere burua arriskatuz, konpromisoaren urratsa emanaz.

b isilean geratu, bakartasun goxoan, oztopatzen duen guztitik bereizita, Jainkoarekiko lotura errazteko.

c Berari lotu, bere eskuetan geratu, kanporatua edo balio-gabetua izateko beldurrik gabe.

Deskribatutako hiru urratsak Psikologian “*Fede egintza*” deituko genukeena izan daitezke.

5. Nork bere burua konfiantzaz ematea

Jainkoarekin izandako kontaktu batek ez du asetzen: “izateko behar bat” eragiten du (hutsune, atsekabe sentsazioa) eta “Jainkoaren gogo bizi” bat. Etorkizunean errepikatuko diren “Jainkoaren esperientziarako” motorra dira (“erlijio esperientziak” beste hitzetan)

“*Fede bizitza*” libreki onartutako Jainkoarekiko bir-topaketa kate bukuezina da, gizakia bere erroarekin (Jainkoarekin) lotu eta bere existentzia oinarritzen duena.

Pierre Teilhard de Chardin-ek, “Maitasuna eta Zoriontasunari buruz” liburuan, fedearen dinamika hori aztertu eta hurrengo elkar trukaketa hauetan laburbiltzen du:

1 Gizakiak bere hezitzean, bera izatean, aurkitzen du zoriontasuna eta, horretarako, bere baitan “*zentratu*” behar du.

2 Ondoren, beste gizakiekiko maitasunean deskubritzen du zoriontasuna eta, horretarako, bere baitatik atera eta “*deszentratu*” behar du.

3 Bukatzeko, Jainkoa gurtzen eta berarekin lotzen aurkitzen du zoriontasuna, horrek “superzentratzea” suposatzen du (arreta osoa beraren gainean dagoen zerbaiti zuzendu)

Hori egiteko, gizakiak bai maitasun ideial eta mundutiarrei, bai bere buruariuiko egin behar die (zentzu horretan ulertzen du Teilhard de Chardin-ek, bere “Unibertsoaren Ereserkian”, Ebanjelioko esaldi hau “bere bizitza salbatu nahi duenak, galduko du”: soilik bere adierari uko egiten dionak iristen du bere izaera)

6. Elkar Maitasuna

Jainkoaren eskuetan konfiantzaz jarria dagoen eta Kreatzaileari leial zaion gizakiak, “otzantasuna” praktikatu behar du (nagusiaaren eskuari egokitu), horrela bakarrik nagusiaren be-

netako islada izanzen delako, Jainkoarengandik jasotzen duen maitasun-dohaina besteengana proiektatuko duen neurrian; Jainkoa zuzenean edo, beste gizakien, bere sorkarien bidez bilatu beharko du, horien artean maitagarri ez direnak sarturik, bere “Jainko” maitatuaren –bere Gidari eta Egia– estiloari atxikiz.

Maitasun bizitza estilo hori gauzatzen duenak bakarrik praktikatzeko du egiazko erlijiositatea, barnekoa. Julian Mariasek horrela zehazten du: “erlijioa ez da beti pertsonala halabeharrez. Jainkoarengan sineste hutsa, haren botereari men egitea, bere aginduen betetze hutsa, ez da aski. Zerbait gehiago behar da: konfiantza, itxaropena, otoitza, Jainkoari pertsona bat bezala deitzea, berarekin elkarrizketa sortzea. Baina, batez ere, maitasuna: gizakiaren ezaugarrien gako”.

7. Gizakiaren Misterioa eta Jainkoaren Misterioa

Fede bizitzan, Jainkoarekin bat egitean, gizakiak bere bizitzaren misterioa argitzen has daiteke eta, horri esker, bera izaten hasi, modu jatorrean.

Marcel Legaut-ek bizipen hori hitz hauen bidez adierazi zuen:

“*bizitzaren zorabio eta garai ilunetan zehar, misioaren zabaltze eta fruitu ematearen aurrean, (beharrezkoa da)*”

bizitza propioaren hari ikustezina ukitzea, nor bere misteriora hurbiltzea, bere batasuna, bere sendotasuna, bere iraunpena lortu, bere bakartasuna deskubritu, bere bakardadean sartu.

Existitze propioarekin ezkondu.

*Gure baitan
gure Jainkoarekiko batasunean
gure komunioan
sortzen denaren oinarria”.*

8. Fede bizitza Konpartitua

Egiazko fedea, etengabe eguneratzen den sinestunaren eta Jainkoaren arteko komunio kuttunean oinarritua, Karl Rhaner-ek XXI. mendeko benetako sinestuna mistikoa edo ezer ez litzatekeela izanen (“zerbait sentitu ala ez litzateke sinestuna izanen”) esatean aipatzen zuen hori, hagitz izaera pertsonal eta barnekoa izan arren, ez da inolaz ere banakakoa.

Aitzitik, Jainkoarekiko komunioa Marcel Legaut-ek “gizabakoen elkartean” deitutakoan agertzen da: fede talde bat, non kide bakoitzak Jainkoarekiko harreman pertsonala trinkotasunez bizi duen baina, betiere, elkartasun lotura sakon baten testuinguruan non gizakiaren biherstura nagusiak ezdeusten diren: “bakartasun-bereizketa-rena” eta bereizketa pertsonalik gabeko nahasketatik abiatzen den “enajenazioarena”.

9. Fede bizitza Bideratua

Sinestun helduak Nazaretoko Jesus du gidari bere fede kon-

promisoan eta horrek Aitarekiko maitasun erlazioa nola bizi behar duen adierazten dio. Olegario Gonzalez de Cardenalek “Kristofania” hitza erabiltzen du Jesusek gizakiaren Jainkoarenganako bidea argitzen duen irudia izendatzeko.

Jesus, Kristoa, “Giza-izaki-Perfektu” eta Jainko Aita agertzen duen “Mesias” dimentsio bikoitzean, gizakiaren aurrean aurkezten da Aitarengana iristeko enbaxadorerik hoherena bezala.

Alde batetik, Jainkoaren Leku handia da, Berari buruz gauza gehien eta hoherenak transmititu dizkiguna.

Bestaldetik, Jesus da “Jainkoaren Gizaki” purua, bere Aitarekiko (Abba) erlazioa zintzotasun, xamurtasun eta konfiantza gehienarekin bizi izan zuena, Berarekiko prestutasun jarrera garbiarekin.

Ikuspegi psikologiko eta pertsonaletik, Kristo-Gidari horrengandik, sinestunari doktrinaz gain, bere jarrera interesatzen zaio batez ere.

Jesusen portaerak, detaileak, dira gizakiari Jainkoaren semea izatearen misioa ulertzen eta identifikatzen gehien laguntzen diotenak.

Jesus, Aitari leiala den Semea, mundu honetan Aitaren Hitzaren denak, dizipulu onaren, sinestun konprometituaren, Jainkoaren semearen giza portaeraren ezaugarri argi batzuk eskain-

zen ditu, mundu honetan bere irudi eta islada direnak: inkonformista; iraultzailea; tentazioen aurrean sendo eta indartsua; eramandakoa; besteen mugak eta epelkeriekin ulerkorra; pobre eta txikien aldekoa; gezurra, zapalkeria eta hipokresiarekin gogorra; harrigarri eta misterioitsua (“bere Erreinu ez baita mundu honetakoa”)

Planteamendu psikologiko eta psikiatriko batetik, barneko fede dinamika heldu horretan ez dago absurdu izan litekeen edo gizaki sinestunaren buruko osasunerako eragin kaltegarria izan daitekeen ezer. Alderantziz, deskribatu berri dugun fede jator horretan, bizitzen duenarendako hainbat **alderdi psikologiko onuragarri** atzema-tzen ditu. Zehaztu:

a Fede sendagarria da

Olegario Gonzalez de Cardenalek, fede horri buruz ari delarik, “*Kristoterapia*” deitzen dio Jesus “*Salbatzailearen*” irudiak duen izaera sendagarriari.

Halaber, Jon Sobrinok, “Jesus-cristo liberador” izeneko liburuan fedearen alderdi sendatzaile hori azpimarratzen du oso ongi. Laburki esanda bada ere, hauxe da erabiltzen duen argudiatze haria:

- Fedea errealitate pertsonal bat da, jarraipen bat, dizipulatu bat.
- Fedea ez da egia doktrinaren onarpen hutsa. Alderantziz, sinestunak bere

“fede segurtasuna” alde batera utzi eta Jainkoarekin elkartzeko ezjakite eta ezintasuna onartu behar ditu.

- Fedea errealitate bizia da, gizakia eraberritu eta bere jatorria den Jainkoari bidaltzen duena.
- Jainkoarekin elkartzean sinestuna berregiten da eta bere izaera propioan hazten da: osasuntsu bihurtzen da bere izaera propioaren kontra jotzen zuen guztitik salbatzen delako.
- Kontua ez da Jainkoak mirari bat egin eta gizaki bakoitza, duen fedegatik, salbatzea (sendatzea). Jadanik Jesusek, bere garaian, guztion alde eskaini zuen bizitza. Fedea bera da gizaki bakoitza sendatzen duena (horixe da “zure fedea salbatu zaitu” Ebanjelioko esaldiaren zentzu zorrotza: zure fedea izaten ahalbidetu eta sendatu zaitu)
- Orduan, Jainkoak gizakia salbatzen du “barnetik”. Ez du bere boterea erabiltzen kanpotik aldarazteko: Jainkoaren nahia da gizakiak berak, bere askatasuna erabiliz, bere burua sendatzea (eta horrela egiten du “terapetua ezin hobea” delako)

Azken buruan, egiazko fedea ez dizkio gizakiari *menpekotasunak sortzen*, bera izaten ahalbidetzen

dio ordea. Hazten laguntzen dio, Julian Mariasen hitzetan “gehiago izaten” laguntzen dio, “pertsona izateak” duen barreneko ezaugarri bat.

Ikuspegi horretan, ulergarri egiten da Jose Maria Mardonesek esandakoa “Jesusek sakratua dena gizakiearengan paratzen du” (ez du alienatzen, ezta ordezkatzeko ere)

b *Autoezagutza hobetzen* duen fedea da

Heidegger-ek esan zuen “gizakia misterio bat dela berez” eta horrekin gizateria osoaren esperientzia bat baieztatu zuen.

Bada, lehen aipatu dugun bezala, “giza misterioa” “Jainkoaren misteriotik” bakarrik argitzen da. Jainkoaren egiaztapenak gizakiari bere existentziaren zentzua ikustea ahalbidetzen dio, beste edozein hurbiltze biderik baino hobeki: informazioak (zientziak emana), introspektzioa (autoulertzearen bakarkako bidea) edo espekulazioa (arrazoia ulertzearen zerbitzura)

“Jainkoarengandik” eta “Jainkoarengan” sinestunak nor den eta zertarako den galderei ihardesten die.

c *Hazkundera laguntzen* duen fedea da

Jainkoratze (bere jatorria den Jainkoarengana itzultzea) horretatik aitzina, gizaki sinestun gero eta libreagoa eta transitiiboagoa, helduagoa, egiten da.

Ez da Jainkoarengan ezkutatu eta ez da Berarengan deuseztatzen. Ez da aho-zabalik geratzen anai-arrebekin egindako talde ospakizunetan. Fede heldua duen gizakiak, Aitaren maitasun eskuetara eskaini eta eliz dimentsioa bizi duenak badaki, eskuratutako lasaitasunean, bakarrik mantentzen eta ausarta izaten.

Jainko-Erroari, giza izatearen diseinatzaile bakarrari, lotua dagoen neurrian gizakiagoa (helduagoa) izanen da.

Horregatik sinestun askok bat egiten dugu Juan Ramon Jimenezen olerkiarekin:

*Quando sales en sol, dios conseguido,
no estás en el nacerte sólo;
estás en el ponerte,
en mi norte, en mi sur;
estás, con los matices de una cara grana,
interior y completa,
que mira para dentro,
en la totalidad del tiempo y el espacio.*

*Y yo estoy dentro de ella,
dentro de tu conciencia general estoy
y soy tu secreto, tu diamante,
tu tesoro mayor, tu ente entrañable.*

*Y soy tus entrañas
y en ellas me remuevo
como en aire, y nunca soy tu ahogado;
nunca me ahogará en tu nido
como no se ahoga un niño en la matriz
de su madre, su dulce nebulosa;
porque tú eres esta sangre mía
y eres su circular,
mi inspiración completa
y mi completa expiración:
respiración total de nuestra entera gloria.*

d *Giza bertuteak bultzatzen* dituen fedea da

Giza izatea Jainkoarengandik sortu denez, kristau fedea sortu denez, kristau bertute sorta zabal bat builatzen du bere jarraitzaileengan, adiurre trazu sendoak, dauzkatenei aberastu eta talde bizitza hobetzen laguntzen dutenak.

Bertute giza-kristau (hitz bereizi ezinak) horien aipatzea aski izanen da dakarten emaitza psikologikoa argi uzteko: *maitasuna, elkartasuna, poztasuna, itxaropena, ontasuna, begirunea, egia, zuzentasuna, otzantasuna, adeitasuna, neurritasuna.*

e *Gizarte erantzukizuna handitzen* duen fedea da

Jainkoa, guztion Aitak, elkartasun eta anaitasun konpromiso sakona eskatzen dio sinestunari. Erreinu: “mundu hobe bat”, ezartzera gonbidatzen dio.

Sinestun helduak konprenitzen du bere eginbeharra mundu honetako baldintzak eta kategoriak hobetzea dela, Jainkoarekiko komunioan.

Barneko bizipen sakon horretatik Angel Urrutiak egindako “Aita Gurea” bezalako adierazpenak sortzen dira, nire ustez bertan bi ideia ageri dira argi eta garbi: gizakiaren izaera instrumentala eta munduaren salbazioan inplikatzeko eta eragile izateko duen gogo. Ikus dezagun:

“Maitasunean zauden Aita gurea; arrosez santifika ezazu gure izena, egin gaitzazu argiaren seme-alabak, lora arazi guran zure nahia, lurra zeru luze bat bihurtzeko.

Erein itzazu eguneroko ogi eta maitasuna, bete itzazu urrez gure eraztunak, jarrioz munduari zure bihotza ez gaitzazu iluntasunean erortzen utzi, eta libra gaitzazu gaiztokeriatik eta maitasun ezatik” .

KONKLUSIOA

Fede heldugabe, moldakor eta eroso bat, fenomeno soziala, pertsonala ez dena, huskeriaren edo konpromiso faltaren ondorioa, psikologiaren aldetik kaltegarria izan daiteke infantilizataile eta neurotizatailea den neurrian.

Fede bakar eta egiazkoak, pertsonalizatua eta onartua dagoenak, ez du kaltegarria izan behar buruko osasunaren aldetik. Aitzitik, konpromisoz bizitzen bada, energi iturri indartsua eta heldutasun pertsonal positibo baten prozesua eratzeke eta giza aberastasun egoki bat lortzeko bidea izan daiteke.

